



BALDINTZA TEKNIKOAK, ARRATEKO ATERPETXEKO EGONALDI ETA OSTATU ZERBITZUAK ETA HAN GERRAKO FRONTEARI BURUZ DAGOEN INTERPRETAZIO ZENTROKO DINAMIZAZIO ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO BETE BEHARREKOAK

1.- SARRERA

Arrateko aterpetxea udal instalazio bat da, Eibako herrigunetik zortzi kilometrora dagoena. 719 metro koadro ditu, eta honela daude banatuta:

- Beheko solairua: harreralekua eta bulegoa, Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa, komunak (gizonezkoena eta emakumezko eta ezinduen), mugikortasun mugatuko pertsonentzako gela, ikastaroetarako eta prestakuntzarako aretoa, sukaldea eta jangela.
- Lehen solairua: begiraleentzako eta irakasleentzako bi logela (bi ohekoa bata eta hirukoa bestea), ohatzeak dituzten bi logela (48 lagunentzat), dutexak eta komunak.
- Lehen sotoa: landa-eremua dinamizatzeko erabilera anitzeko aretoa (sarbide berezia duena), biltegia eta garbiketako gauzentzako tokia (garbigailua).
- Bigarren sotoa: galdarategia.

Instalazioa 1910. urtean jarri zuten abian. 1996an eta 1997an, aterpetxea eraberritzeko eta ekipamendua (ohatzeak, sukaldea, komunak...) berritzeko lanak egin zituzten, eta 1998an berriro zabaldu zuten, 2003ra arte. Urte hartan, izan ere, inori ez zitzaion eman zerbitzua ustiatzeko lana, bi aldiz lizitaziora atera arren. 2012an, obra batzuk egin zituzten hezetasun-arazoak eta galdararen arazo batzuk konpontzeko. Era berean, geletako bat egokitu zuten, Gerra Zibileko fronteari buruzko interpretazio-zentroa jartzeko eta hura erreferentzia berezi bat izan zedin eskualdean. Zentro horretan, 1936ko urritik 1937ko apirilera arteko aldia azaltzen da; garai hartan, izan ere, Arraten zegoen gerra-fronteko muga. Gertaera historiko horrek gerrako hainbat aztarnak utzi ditu Arrate aldean, turistak erakartzeko modukoak.

Helburu hauek betetzeko zabaldu da berriro aterpetxea: taldeei ostatu emateko eta Arraten eta inguruan Gerra Zibilari buruzko interpretazio-zentroa dinamizatzeko.

Arrateko aterpetxea 55 lagun hartzeko dago prestatuta.

2.- XEDEA

Arrateko aterpetxean taldeei egonaldi- eta ostatu-zerbitzuak ematea da kontratu honen xedea, eta Gerra Zibileko Eibarko fronteari buruz eraikin hartan bertan dagoen interpretazio-zentroa dinamizatzea.

Zereginak honako hauek izango dira:

2.1. Aterpetxea erabili nahi duten taldeei ostatu- eta egonaldi-zerbitzua ematea. Zerbitzu horrek hauek bilduko ditu:

2.1.1. Aterpetxeko erreserbak kudeatzea.

2.1.2. Egonaldia bitartean taldeen beharrei erantzutea.





- 2.1.3. Otorduak ematea: gosaria, bazkaria, askaria (12 urtetik beherakoentzat) eta afaria.
- 2.1.4. Gela-zerbitzua: oheak eta gelak garbitzea.
- 2.1.5. Aretoak, denok erabiltzeko guneak, gelak, komunak eta sukaldea garbitzea.

2.2. Ostatu-zerbitzuak emateko gutxienez bete beharrekoak:

2.2.1. Erreserben kudeaketari dagokionez, deitzeko eta erreserbak egiteko telefono bat egongo da herritarren eskura lau orduz gutxienez, astelehenetik ostiralera. Gainera, Arrateko aterpetxearen berri emateko neurriak hartu beharko dira; adibidez, Arrateko aterpetxearen eta Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroaren instalazio eta zerbitzuen berri emateko eskuorriak argitaratzea eta sare sozialetan (Facebook, Twitter, g+ edo beste batzuk) euskaraz eta gaztelaniaz zerbitzuaren berri zabaltzea. Hala eskuorriak nola zabalkundea euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dira.

2.2.2. Arrateko aterpetxean bertan taldeak zerbitzatuak dituen norbait behar da.

2.2.3. Eskatzen diren otorduak emateko zerbitzua antolatu beharko da.

2.2.4. Garbiketa-kontua: aterpetxean taldeak dauden egunetan, komunak egunero garbitu beharko dira; gelak eta guztiok erabiltzeko guneak, astean bi bider gutxienez, edo taldeen egonaldiak bukatutakoan; oheak, astean behin edo taldeen egonaldiak bukatutakoan.

2.3. Dinamizazio-zerbitzua: Arraten eta inguruan tailerrak eta jarduerak antolatu beharko dira, Arrateko aterpetxean ostatu hartuta daudenei eskaintzeko. Dinamizazio-zerbitzu horren osagai berezia eta akuilua, batetik, Gerrako Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa izango da, eta, bestetik, gerrako fronteko bideak eta aztarnak ikusteko bisita gidatuak. Euskaraz eta gaztelaniaz izango dira bai bisita gidatuak eta bai tailerrak eta jarduerak.

2.4. Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa bi ordu egongo da zabalik asteburuetan jendearentzat; urtean, guztira, ehun ordu egongo da zabalik.

3.- KUDEATZAILEAREN BETEBEHARRAK.

- Kontratuan jasotako zerbitzuak udalak onartutako eta proposatutako baldintzetan ematea.
- Eraikina, instalazioak, tresnak eta altzariak zaintzea, begiratzea eta mantentze-lanak egitea.
- Arrateko aterpetxea erabiltzeko araudia betetzea.
- Kontratua amaitzean, eraikina eta instalazioak hasieran zeuden bezala uztea, erabilerak berez dakartzan kalteak konponduta.
- Egonaldiak izaten direnean, arduradunen bat egotea aterpetxean eguneko 24 orduetan.
- Aldian-aldian udaleko arduradunekin bilerak egitea, zerbitzuak nola dauden aztertzeko, bai eta egonaldien urteko egutegia eta ikastaroen programa prestatzeko bilerak egitea ere.
- Arrateko aterpetxea ustiatzeko lanaren mesederako edozein aldaketa proposatzea udalari.
- Eskolak emateko eta jarduerak aurrera eramateko langile egokiak izatea.
- Urtean egindako jarduerak biltzen dituen memoria bat —eta, hala nahi badu, kontratua luzatzeko proposamena— aurkeztea, euskaraz eta gaztelaniaz.
- Honako gastu hauek ordaintzea:
 - Instalazioak garbitzeko gastuak
 - Material suntsikorren gastuak
 - Tailerretarako materialen gastuak
 - Argindarra, gasa, telefonoa, ura eta kontratatzen den beste edozein homidura.
 - Instalazioak zaintzeko konponketa txikiak
- Arrateko aterpetxeari eta Gerra Zibilaren Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroari buruz sare sozialetan (Facebook, Twitter, g+...) zabaltzen den informazioa eguneratuta edukitzea, euskaraz eta gaztelaniaz.





- Asteburuetan bi ordu zabaltzea Gerra Zibilaren Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa. Era berean, gerrako frontearen bideak eta aztarnak ikusteko eskatzen diren bisita gidatuak antolatzea.
- Arrateko aterpetxea udal jardueretarako uztea urtean hamabi egunetan. Horietan, enpresa esleipenduna arduratuko da instalazioak zabaltzeaz, ixteaz, zaintzeaz eta garbitzeaz.

4.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK.

Eskubide hauek izango ditu esleipendunak:

- Erabiltzaileek ordaindutako kuotak jasotzea.
- Eraikina eta hango instalazioak kontratuaren xederako erabiltzea.
- Zerbitzua hobetzeko egokitzat jotzen dituen proposamen edo aldaketa guztiak planteatzea.
- Udalaren aldetik 12.000 € jasotzea. Esleipendunak kopuru hori txikiagoa izatea proposa dezake.

Erabiltzaileek zerbitzuengatik ordaindu beharreko kuotak honako taula honen arabera izango dira, baina taldeek gutxienez 22 lagunekoak izan behar dute betiere.

22 lagun baino gutxiagoko taldeek 22 laguneko talde bati dagokion beste ordaindu beharko dute.

ARRATEKO ATERPETXEA / OSTATU EMATEA	Egun 1	Egun 2 (gau 1)	3 egun (2 gau)	Gainerako egunak
Aterpetxe-zerbitzua, otordu barik	10 €	18 €	27 €	8 €/gauko
Aterpetxe-zerbitzua eta otordua (1)	-	28 €	50 €	Beste gau bat, 20 €

(1) Sartuta daude: gosaria edo almortzua, bazkaria, askaria eta afaria. Ez da sartzen azkenengo eguneko bazkaria.

TALDEEN EGONALDIA OSTATU EDO LOGELA GABE	3 ordu	5 ordu	10 ordu	12 ordu
Jangela eta ikastaro-gela	54 €	90 €	130 €	150 €
Dutxak	70 €	115 €		

GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA		
Banakako txartelak	2 €	Hurrek, 1 €
Gerrako fronteko bideak eta aztarnak ikusteko bisita gidatuak (iraupena: lau ordu; taldeak: gehienez, 22 pertsona)	80 €	

5.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza-gaitasuna:

Egonaldi- eta ostatu-zerbitzua

Aterpetxearen arduradunek eta behar honetan dihardutenek euskaraz jakin behar dute, zerbitzua behar bezala emateko moduan.

Dinamizatzeko zerbitzua





Jarduerak eta ikastaroak dinamizatzen dihardutenek EGA titulua dutela frogatu behar dute, edo haren maila bereko titulu baliokidea*, ziurtagiria aurkeztuz.

(*47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena. 297/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, seinaleak eta gainerako komunikazioak, eskuarki, euskaraz egongo dira, baldin eta haietan dioena ezaguna eta ulertzeko modukoa bada.

Hala ez bada, bi hizkuntzetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez betiere.

Informazio-eskuorriak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira. Sare sozialetan, berriak eta jakinarazpenak euskaraz ere idatzi beharko dira.

Zer hizkuntza erabili herritarrekin:

Euskaraz egingo zaie harrera erabiltzaileei hasiera batean.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dira. Erabiltzaileek nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera izango dute une oro.

Euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dira jakinarazpen eta komunikazio guztiak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, menuen zerrendak, egitarauak, publizitatea, fakturak eta gainerako agiriak), baina euskarari lehentasuna emanez.

Eibarren, 2015eko otsailaren 24an





ATERPETXEKO LOKALETAN DAUDEN UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA, ZEINAK ZERBITZUA EMATEKO ESLEIPENDUNAREN ESKU LAGATZEN DIREN ETA KONTRATUA AMAITZEAN ITZULI BEHARKO DIREN:

ARRATEKO ATERPETXEKO INBENTARIOA		Bulegoa. Beheko solairua	Ikasgela. Beheko solairua	Jangela	Logela. Beheko solairua	Sukaldea	Logela handi eta luzea. Lehen solairua	Logela handi eta karratua. Lehen solairua	A begiraleen logela. Lehen solairua	B begiraleen logela. Lehen solairua	Aisiarako aretoa. Lehen sotoa
Aulki beltzak	35	3	7	23		2					
Federico Giner aulki grisak	41	1		40							
Federico Giner besaulkiak	20		20								
Aulki birakari morea	1	1									
Fliper modeloko aulki beltzak	30										30
Askorentzako mahai laukizuzenak	6	1									5
Funtzio anitzeko a4 aparatua, OKI MC352 kolorekoa	1	1									
Acer aspire V- 571-3 ordenagailuak	2	2									
Proiektorea	1										1
Pantaila	1										1
Ingurumen-altzariak	3										3
Mahai-futboleko mahaia	1										1
Mahai-teniseko mahaia	1										1
	0										





Federico Giner armairu gris handia	3	1	1	1						
Apalategiak edo armairu txikiak	2	2								
Gurpil-armairu txiki grisa	1	1								
Eskuorrientzako euskarriak	2	1								1
Kristalezko bitrina handi giltzaduna	2	2								
Paperontziak	6	6								
Ohatzeak	27			2		8	13	1	3	
Koltxoiak	53			3		16	26	2	6	
Mantak	53			3		16	26	2	6	
Burkoak	53			3		16	26	2	6	
Koltxoi-azalak	53			3		16	26	2	6	
Ohe-estalkiak	3			3						
Artxibo txikia	1			1						
Aldagela-armairu txikiak	28			2		10	15	1		
Telebistarako altzaria	1			1						
Arbel mugikorra, Vileda motakoa	1			1						
Arbel finkoa, Vileda motakoa	1			1						
Federico Giner mahai laukizuzenak	6		6							
Trapezio formako Federico Giner mahaiak	2			1	1					
Izkinako Federico Giner armairua	1		1							
40 hazbeteko telebista lauak, eta haien	2		1	1						





telekomandoa, haien euskarria...											
VHS erreproduzitailea	2			1	1						
	0										
Luntx-sardexka berriak	60					60					
Mahairako sardexka berriak	60					60					
Kafe-koilara berriak	60					60					
Mahairako koilara berriak	60					60					
Txuleta mozteko labana berriak	60					60					
Postrerako labana berriak	60					60					
Gosaritarako katilu berriak	60					60					
Gosaritarako plater txiki berriak	60					60					
Plater zapal berriak	60					60					
Plater sakon berriak	60					60					
Postrerako plater berriak	60					60					
	0										
Toska zuriko zopaontziak	9					9					
Katilu handi zuriak	31					31					
Mahairako azukreontzi kristalezkoak	4					4					
Oliontziak/ozpinontziak	6					6					
Zeramika zuriko txotx-ontziak	6					6					
Mahairako gatzontzi kristalezkoak	6					6					
Zumezko ogiontzi handiak	8					8					
Plastikozko ogiontzi txikiak	8					8					





Metalezko zamau-babesak	6					6					
Metalezko entsalada-ontziak	8					8					
Kristalezko entsalada-ontziak	1					1					
Metalezko azpil txikia	1					1					
Azpil ertainak	3					3					
Azpil handiak	2					2					
Bi litroko pitxer kristalezkoak	7					7					
Bi litroko pitxerrak	2					2					
Garagardo-pitxerrak	6					6					
Kristalezko hainbat motatako edalontziak (tartean: 11 sagardobaso, 33 ur-baso eta 18 baso txiki-txiki)	62					62					
Plastikozko potoak, aleak eta gordetzeko	3					3					
Plastikozko erretilu handiak	5					5					
Laberako erretiluak	4					4					
Kazola handi eta sakonak	1					1					
Hainbat tamainatako kazola estalkidunak	7					7					
Esnea berotzeko ontziak, estalkirik gabeak	2					2					
Metalezko teontziak	1					1					
Italiar kafetera handia	1					1					
Zartagin handiak	2					2					
Zartagin ertainak	3					3					
Zartagin txikiak	2					2					





Mahai-tresnak eramatekoak, plastikozko zuriak	10					10					
Eskuzko laranja-zukugailua	1					1					
Fagor mikrouhin-labea	1					1					
Urarentzako termo elektrikoak	1					1					
Laranja-zukugailu industrialak	1					1					
Kafetera elektrikoak	1					1					
Metalezko xukagailu handiak	2					2					
Burruntzaliak	4					4					
Botilak zabaltzekoak	5					5					
Kortxo-kentzekoak	1					1					
Ogiarentzako labana	1					1					
Bitsaderak	2					2					
Metalezko haga txikiak	2					2					
Labanak zorroztekoak	1					1					
Erretzeko plantxak	4					4					
Birringailuak	1					1					
Zerbitzatzeko mahai handia	1					1					
Fagor kutxa	1					1					
Fagor hozkailu industrialak	1					1					
Fagor garbigailua	1					1					
Sukalde/labe industrialak	1					1					
Lanbasa-ontzi industrialak	2					2					
	0										





Audio 300 Pro audio-ekipo eramangarria, anplifikagailua, bi bozgorailu oindun, bi esku-mikrofono oindun, Fender Passport 300 Pro 1 soinu-ekipoa	1										
MPA280 etapak	2										
Ecler Sam 512 nahasgailua	1										
Tecnish SL-MC7 CD-irakurgailua	1										
JBL Control 25 bozgorailuak	5										
Fonestar MCH-200 mahai-mikroa	1										
OKI MC 300 inprimagailua	1										
Proel bozgorailuentzako tripodea	2										
Proel mikrofonoentzako oinak	2										
GERRA ZIBILARI BURUZKO EIBARKO INTERPRETAZIO ZENTROA											
Trubia M34 F1 kaskoak, Eibar modelokoak	3										
Gerrako hiru lanjantzi, nazionalenak eta errepublikanoenak	3										





Maniki apaingarriak	3											
Gerrako hiru uhal sorta oso	3											
Arma txikientzako hiru kartutxo-gerriko	3											
Nazionalen eta errepublikanoen hiru pare bota	3											
Nafar Brigadetako karlisten bereizgarria	1											
Falangearen txartela	1											
Tropen kantinplorak	3											
Gerrako motxilak; nazionalenak eta errepublikanoenak	2											
Lubakietako benetako koilarak	2											
Askotariko intsignien sorta: metrailadoreak, bereizgarriak, gerrikoen belarriak,	1											
soldaduak identifikatzeko txapak...	1											
Euzkadiko gerra-kartelen lau kopia markoan ipinita	4											
Gerra Zibilaren garaiko jatorrizko prismetikoak, maniki batean jartzeko	1											
Hegazkinen kontrako 37 mm-ko jaurtigai bat, indargabetua, Usartzan zegoena bezalakoa.	1											
Nazionalen uniformearentzako manta edo tapakia	1											





Lubakietan aurkitutako hainbat gauza (gerrikoen belarriak, osasun arloko gauzak, latak...)	1												
Morteroentzako Valero granada, 50 mm-koa, indargabetua	1												
Morteroentzako Valero granada, 81 mm-koa	1												
Hiru fusilen eta hiru pistolaren erreplikak, gehienak erretxinan eginak	6												
Egiazko esku-bonben erreplika zehatzak, moldeak baliatuta egindakoak	1												
Lurrez betetzeko zakuak	1												
Elegant bitrina laukizuzenak (850X425X1800)	4												
Gerra Zibileko Eibarko fronteari buruzko maketak	1												
Proiektoreak	1												
DVDak	1												
Euzko Gudari intsigniak	2												
Euzkadiko armadaren gerrikoen belarriak	1												
Zulatzaileen batailoiko ikurrak	1												
JSUren ikurrak	1												
Mai Irrintziren ikurrak	1												
Marina Euzkadiren ikurrak	1												
Mendigoizalez Jel ikurrak	1												





Loyola Batailoaren ikurrak	1										
Lacar erregimentuaren bandera karlistaren erreprodukzioa	1										
Armada Popularreko sarjentoen bereizgarria	1										
Armada Popularreko tenienteen bereizgarria	1										
Armada Popularreko komandanteen bereizgarria	1										
Armada Popularraren oihalezko txanoa	1										
Armada Popularreko kaboen txanoa	1										
Armada Popularreko abiazioko txanoa	1										
Erasorako gardien txanoa	1										
Armada Popularreko abiazioko txanoa	1										
Alferezen jaka	1										
CNT FAlko anarkisten txanoa	1										
Falangeko milizien txanoa	1										
Condor Legioaren besoko bereizgarria	1										
"Gizarte-sorospeneko ehun enblema"	1										
Defentsarako granaden erreprodukzioak, erretxinan eginak	3										
Poliespaneazko buruak	6										
Mauser 1916 baterako pieza	1										





Errepublikaren armarria duen bandera ofiziala	1										
Hegazkinen maketak	3										
Eibarko ibilgailu blindatu baten maketa	1										

